

Igartubeiti Baserri Museoa "Izugarrizko arrakasta izan zuen larunbateko marmelada tailerra"

Beti berezia izaten da hilabeteko azken ekintza Igartubeiti Baserri Museoan, eta oraingoan marmelada egiteko tailer didaktikoa prestatu zuten bertakoek, honetan inoiz baino gaztetxo gehiagok parte hartu zutelarik.

Arratsaldeko 16:30etan hasi zen tailerra eta parte hartzaile guztiak interpretazio zentruan bildu ziren. Denera herriko eta inguruko 34 gaztetxo elkartu ziren baserrian, hauek guztiak marmelada egiten ikasi eta hau dastatzeko prest. Hauekin batera lau bat guraso ere egon ziren bertan. Abaltzizketako Nahera Haundi baserriko Angela Linskey etorri zen gurera eta honen laguntzarekin platano eta txokolatezko marmelada biologikoa egiteko aukera izan zuten guztiek.

Nahera Haundiko artisauek marmeladak aintzinako erara laboratzen dituzte, oinarri bezala fruita eta kainako azukre ekologikoa bakarrik erabiltzen dituztelarik. Eraldaketa guztia eskuz egiten da laboratzen dituzten fruita desberdinen ezaugarriak kontutan hartuz, eta hau guztia praktikan jarri zuten larunbatean.

Lehenengo eta behin mahaian bildu eta pausoz pausoz egin beharreko gauza guztiak paper batean apuntatu zituzten, ondoren kontu handiarekin eta Angela-ren laguntzaz marmelada egiten hasi zuten. Arratsalde ezin gozoagoa izan zuten Igartubeitin larunbatean eta oso gustora amaitu zuten guztiak.

Hurrengo hilabeteen ere ekintzak prestatzen jarraituko dute; lehenengoa, larunbata honetako kontzertua izango da.